ANA PURIFICACION HELGUERA LIBANO (1, guztira 1)
EHENDAKARIA
Sinaduraren data: 24/07/2025
HASH: aed23a7ccf15f2983723c65fdba5ef35

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Urteko Oroitidazkia

Memoria Anual del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

2024

Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 73

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 73

Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURKIBIDEA / ÍNDICE

I. SARRERA 5

II. FISKALIZATZEKO ARIBIDEA 7

II.1 LANERAKO PLANA 7

III. BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK 10

III.1 EUSKO LEGEBILTZAR ETA BATZAR NAGUSIEKIKO HARREMANAK ... 10
III.2 KANPO HARREMANAK 10

IV. EPAITEGIAREN ZERBITZURA DIHARDUEN LANGILERIA 12

V. GARAPEN TEKNOLOGIKOA ETA PROZEDURAK 13

VI. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN KUDEAKETA EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA HOBETZEKO NEURRIAK 14

VII. HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIKO AURREKONTUEN ETA URTEKO KONTUEN LIKIDAZIOA 2024KO EKITALDIA. 16

VIII. KUDEAKETARI BURUZKO INFORMAZIOA, 2024KO URTEA 34

ORDUEN NORAKOA 34

AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EGINDAKO URTEKO KONTUEN AUDITORETZA-TXOSTENA 68

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 73

Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

I. INTRODUCCIÓN 36

II. ACTIVIDAD DE FISCALIZACIÓN 38

II.1 PLAN DE TRABAJO 38

III. RELACIONES CON OTRAS INSTITUCIONES 41

III.1 RELACIONES CON EL PARLAMENTO VASCO Y JUNTAS GENERALES 41

III.2 RELACIONES EXTERNAS 41

IV. PERSONAL AL SERVICIO DEL TVCP 44

V. DESARROLLO TECNOLÓGICO Y PROCEDIMIENTOS 45

VI. MEDIDAS PARA LA MEJORA DE LA GESTIÓN ECONÓMICO-FINANCIERA DEL SECTOR PÚBLICO VASCO 46

VII. CUENTAS ANUALES DEL TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PÚBLICAS DEL EJERCICIO 2024 48

VIII.INFORMACIÓN DE GESTIÓN AÑO 2024 66

EVOLUCIÓN HORAS 66

INFORME DE AUDITORÍA DE CUENTAS ANUALES EMITIDO POR UN AUDITOR INDEPENDIENTE 68

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 17a
Vitoria-Gasteiz, 17 de julio de 2025

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 73

Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

I. SARRERA

Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko Legean zehaztuta dago Epaitegiaren oinarrizko konfigurazioa. Lege horrek agintzen du Eusko Legebiltzarraren lege baten bidez sortu eta arautuko dela Epaitegiaren osaketa, antolakundea eta eginkizun fiskalizatzaile eta jurisdikzionalaren prozedura. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeak xedatzen duenez, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak kontrolatuko du Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera ekonomikoa.

Premisa hauek abiaburu hartuta, otsailaren 5eko 1/1988 Legeak Herri Kontuen Euskal Epaitegia sortu zuen Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko atal modura eta zuzenean Eusko Legebiltzarraren mendeko da. Eskumenen esparruan euskal sektore publikoaren ekonomia-finantza eta kontularitzako aribideen organo fiskalizatzaile goren izaera du eta Autonomia Erkidegoan gauzatzen ditu egitekoak, Eusko Legebiltzarrak eskuordetuta. Lege hori urriaren 28ko 6/2021 Legeak aldarazi zuen.

Epaitegia Legebiltzarraren Osoko Bilkurak hautatutako zazpi kidek osatzen dute, kideen hiru bostenen aldeko botoarekin; Epaitegiaren egitura honako atal hauek osatzen dute:

- Lehendakaritza
- Lehendakariordetza
- Osoko Bilkura
- Idazkaritza Nagusia

Epaitegiaren kontrol-esparruak eta luze-zabalak euskal sektore publikoa osatzen duten erakunde guztiak besarkatzen ditu, hau da:

- Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorra.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Erakundeen Administrazioa eta Sektore Publikoa.
- Lurralde Historiko bakoitzeko batzar nagusi eta foru aldundiak eta horien mendeko erakundeen enteak eta sozietate publikoak.
- Toki erakundeak eta horien meneko diren erakundeen enteak eta sozietate publikoak.
- Zuzenbidean onartutako zeinahi moldepean sortutako edozein pertsona juridiko, zuzen nahiz zeharka euskal sektore publikoko erakundeek gehiengoarekin partaidetu edo finantzatzen badute, edo partaidetza edo finantzaketa gutxiengoa izanik, horiek batuta erakunde berean partaidetza edo finantzaketa gehiengoa izatea eragiten badu.
- Aurrez zerrendatutako erakundeetatik eratorritako diru edo baliabide publikoak administratu edo erabiltzen dituen bestelako zeinahi erakunde.

Halaber, Epaitegiaren kontrola heda daiteke Euskal Sektore Publikoak emandako laguntza ekonomiko edo finantzarioak, hala nola, diru-laguntzak, salbuespenak edo hobari fiskalak, ekarpenak edo ondasun- zein industria-lagapenak, kredituak, abalak eta bestelako bermeak

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 73

eskuratzen dituen bestelako zeinahi pertsona fisiko zein juridikoren aribidera. Kontrolak laguntzei erabilera eta norako egokia ematen zaiela egiaztatuko du.

ANTOLAMENDUA

Epaitegia bere aribidea garatzeko fiskalizazio arloetan dago banatua. 2024ko ekitaldian eta Epaitegiaren kideak berritu izanaren ondorioz, Osoko bilkurak 2022ko urtarrilaren 27an adostutako moduan, lan arloen banaketa berria onetsi zuen; baita, kontseilari bakoitzak esparru bakoitzaren gainean zuen erantzukizuna ere; hona hemen arloen araberako zati-banaketa:

Lehendakaritza: EAEko erakunde publikoak, hauteskunde-kontabilitateen txostenak, Kontuen Epaitegiarekin eta/edo gainerako KKOekin lankidetzan egindako txostenak, txosten bereziak, partaidetza txiki-handiko entitateak.

- Lehendakariordetza: Arabako Foru Aldundia eta Bizkaiko Foru Aldundia.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorra.
- Gipuzkoako Foru Aldundia, partzuergoak (Urak, Hondakinak, beste).
- Euskal Herriko Unibertsitatea, Osakidetza, Bizkaiko Garraio Partzuergoa.
- 40.000 biztanletik gorako udalak.
- 40.000 biztanletik beherako udalak, mankomunitateak, kuadrillak eta Txosten Diagnostiko Orokorra.

Banaketa honen helburua lanak sektore homogeneoen arabera egitea da, erakundeen izaera abiaburu hartuta; baita, lan bolumena aintzat hartuta, auditoria taldeak egoki izendatzea ere.

2022ko urriaren 27an egindako osoko bilkuran, aho batez, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Barne Araubidearen Erregelamendua onartu zen.

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 73

Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. FISKALIZATZEKO ARIBIDEA

Otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 9. artikuluari jarraikiz, egiteko fiskalizatzaileak helburu du euskal sektore publikoa osatzen duten erakundeen jarduera ekonomiko eta finantzarioa antolamendu juridikoari egokitzen zaiola egiaztatzea. Fiskalizazioak, orobat, dirulaguntzen helburua bete den egiaztatuko du.

Erakundeek igorritako Kontu Orokorrak abiaburu hartuta, txostenak onirizten dira eta izaera orokorrarekin honako hauek osatzen dituzte:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Urteko Kontuei buruzko txostena.
- Hiru lurralde historikoen Kontu Orokorren txostenak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko toki entitateen Kontuei buruzko txosten orokorra.

Honez gain, berariazko txostenak hezurmamitzen dira, egiteko fiskalizatzailea gainerako euskal sektore publikora hedatzearren; hauek, Epaitegiaren beraren ekimenez egiten dira, edota, Eusko Legebiltzarrak edo lurralde historikoetako batzar nagusiek eskatuta.

II.1 LANERAKO PLANA

Lanerako Plana hezurmamitu aurretik, Epaitegiak planean barne hartzeko diren lehentasunezko eskabideak jaso eta aztertu ditu, Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak eta lurralde historikoetako batzar nagusietako dagozkien batzordeek eskatutakoak.

Epaitegiaren Osokoak 2024ko otsailaren 8an egindako osoko bilkuran 2024ko aldirako Lanerako Plana onetsi zuen.

Ondotik emango ditugun datuek lanen egoera erakusten dute 2024ko abenduaren 31n.

1.- EAEko Administrazio Orokorraren Kontuaren fiskalizazioa, 2022. Behin betiko txostena 2024/04/25eko osoko bilkuran onartu zen.

2.- Osakidetza – Osasunaren Euskal Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren eta haren mendeko sozietatearen fiskalizazioa, 2022. Behin betiko txostena 2024/10/24ko osoko bilkuran onartu zen.

3.- EHUren eta haren fundazioen fiskalizazioa, 2022. Behin betiko txostena 2024/09/26ko osoko bilkuran onartu zen.

4.- EAEko Administrazio instituzionalaren eta erakunde Instrumentalen fiskalizazioa, 2022. Behin betiko txostena 2024/10/24ko osoko bilkuran onartu zen.

5.- Arabako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorraren fiskalizazioa, 2022. Behin-behineko txostena 2024/10/24ko osoko bilkuran onartu zen. Lana abian da.

6.- Bizkaiko Lurralde Historikoaren Kontu Orokorraren fiskalizazioa, 2022. Plangintza-memoranduma 2023/09/28ko Osoko bilkuran onartu zen. Lana abian da.

7.- Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorraren fiskalizazioa, 2022. Behin betiko txostena 2024/02/29ko osoko bilkuran onartu zen.

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 73

Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

8.- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren fiskalizazioa, 2022. Behin betiko txostena 2024/07/10eko osoko bilkuran onartu zen.

9.- Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeen kontuen fiskalizazioa, 2021. Behin betiko txostena 2024/02/29ko osoko bilkuran onartu zen.

10.- Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeen kontuen fiskalizazioa, 2022. Behin-behineko txostena 2024/07/30eko osoko bilkuran onartu zen. Lana abian da.

11.- Bilboko Udalaren fiskalizazioa, 2022. Behin betiko txostena 2024/11/28ko osoko bilkuran onartu zen.

12.- Artziniegako Udalaren fiskalizazioa, 2022. Behin betiko txostena 2024/10/24ko osoko bilkuran onartu zen.

14.- Berangoko Udalaren fiskalizazioa, 2022. Behin betiko txostena 2024/02/29ko osoko bilkuran onartu zen.

14.- Elgetako Udalaren fiskalizazioa, 2022. Behin-behineko txostena 2024/11/28ko osoko bilkuran onartu zen. Lana abian da.

15.- Urnietako Udalaren fiskalizazioa, 2021. Behin betiko txostena 2024/02/29ko osoko bilkuran onartu zen.

16.- Zarauzko Udalaren fiskalizazioa, 2022. Behin betiko txostena 2024/12/19ko osoko bilkuran onartu zen.

17.- Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen fiskalizazioa, 2022. Behin betiko txostena 2024/07/10eko osoko bilkuran onartu zen.

18.- Kontuen Epaitegiarekin eta KKOekin koordinaturiko fiskalizazioa: tokiko esparruan energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko hartutako neurriak. Behin betiko txostena 2024/12/19ko osoko bilkuran onartu zen.

19.- Kontuen Epaitegiarekin eta KKOekin koordinaturiko fiskalizazioa: Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren fiskalizazioa. Hezkuntza sistema digitalizatzeko programa. Lana abian da.

20.- EAEko Administrazio Orokorraren Kontuaren fiskalizazioa, 2023. Behin-behineko txostena 2024/12/19ko osoko bilkuran onartu zen. Lana abian da.

21.- Osakidetza-Osasunaren Euskal Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren eta haren mendeko sozietatearen fiskalizazioa, 2023. Plangintza-memoranduma 2024/11/28ko osoko bilkuran onartu zen. Lana abian da.

22.- EHUren eta haren fundazioen fiskalizazioa, 2023. Lana abian da.

23.- EAEko Erakundeen Administrazioaren eta Erakunde Instrumentalen fiskalizazioa, 2023. Plangintza-memoranduma 2024/10/24ko osoko bilkuran onartu zen. Lana abian da.

24.- Arabako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorraren fiskalizazioa, 2023. Lana abian da.

25.- Bizkaiko Lurralde Historikoaren Kontu Orokorraren fiskalizazioa, 2023. Lana abian da.

26.- Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorraren fiskalizazioa, 2023. Plangintza-memoranduma 2024/10/24ko osoko bilkuran onartu zen. Lana abian da.

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 73

Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

27.- Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeen kontuen fiskalizazioa, 2023. Plangintza-memoranduma 2024/11/28ko osoko bilkuran onartu zen. Lana abian da.

28.- Santurtziko Udalaren fiskalizazioa, 2023. Plangintza-memoranduma 2024/10/24ko osoko bilkuran onartu zen. Lana abian da.

29.- Basauriko Udalaren fiskalizazioa, 2023. Plangintza-memoranduma 2024/10/24ko osoko bilkuran onartu zen. Lana abian da.

30.- Etxebarriko Udalaren fiskalizazioa, 2019. Plangintza-memoranduma 2024/10/24ko osoko bilkuran onartu zen. Lana abian da.

31.- Leioako Udalaren Fiskalizazioa, 2023. Plangintza-memoranduma 2024/12/19ko osoko bilkuran onartu zen. Lana abian da.

20.- Aiako Udalaren Fiskalizazioa, 2023. Plangintza-memoranduma 2024/09/26ko osoko bilkuran onartu zen. Lana abian da.

33.- Kontuen Epaitegiaren eta KKOen arteko fiskalizazio koordinatua: Emisio Txikiko Eremuak (ETE), 2023. Lana abian da.

34.- Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak, 2024. Behin betiko txostena 2024/09/19ko osoko bilkuran onartu zen.

35.- Kontuen Epaitegiaren eta KKOen arteko fiskalizazio koordinatua: Autonomia erkidegoetan etxebizitza babestua sustatzea eta kudeatzea. 2022 eta 2023ko ekitaldiak. Lana abian da.

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 73

Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK

III.1 EUSKO LEGEBILTZARRAREKIKO ETA BATZAR NAGUSIAREKIKO HARREMANAK

Garatzen duen egiteko fiskalizatzailearen ondorioz azaleratutako legezko zein kontularitzako lege hausteak eta okerreko praktikak jasotzen dituen txostena egiten du Epaitegiak; halaber, fiskalizatutako erakundeen kudeaketa ekonomikoa eta finantzarioa hobetzeko ezarri beharreko neurri zuzentzaileak ematen ditu.

Txostenak honako hauei igortzen zaizkie: Eusko Legebiltzarra, Batzar Nagusiak, fiskalizatutako erakundeak eta Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta udalak.

Lehendakariak agerraldia egin du 2024ko otsailaren 19an, Eusko Legebiltzarreko Erakunde, Gobernantza Publiko eta Segurtasun Batzordearen aurrean, Euskadiko gardentasunari buruzko lege-proiektuari dagokionez, eta urriaren 29an Ogasun eta Aurrekontu Batzordean, dagokion arloko kontseilariarekin batera, EAEko Administrazio Orokorraren 2023ko txostena aurkezteko.

Lehendakariak eta lehendakariordeak agerraldia egin dute 2024ko otsailaren 12an Arabako Batzar Nagusietan eta urtarrilaren 23an Bizkaiko Batzar Nagusietan, 2020ko ekitaldiko lurralde historikoetako Kontu Orokorren txostenak azaltzeko. Bestalde, lehendakaria, arlo eskuduneko sailburuarekin batera, EHUko Gizarte Kontseiluaren aurrean agertu zen otsailaren 13an, 2021eko ekitaldiari buruzko txostena azaltzeko, eta abenduaren 18an, 2022ko txostena azaltzeko.

Era berean, lehendakariak 2024ko ekainaren 20an agerraldia egin zuen Diputatuen Kongresuan Ikerketa Batzordearen aurrean, COVID-19ak eragindako pandemia-krisian administrazio publikoek material sanitarioa eskuratzeko kontratazio-prozesuen inguruko gertakari, erantzukizun eta irakaskuntzak zirela-eta.

III.2 KANPO HARREMANAK

Kanpo Kontrolerako Organoak

1995az geroztik hainbat lankidetza hitzarmen izenpetu dira Kanpo Kontrolerako Organoekin (KKO/OCEX); horien bitartez guztien arteko harreman ak finkatzen dira eta prestakuntza eta hedapen egitekoak zehazten. Horretarako, jarraipen batzorde bat sortu zen eta berak onartzen ditu prestakuntza planak.

Harreman horren baitan, 2015eko ekitaldian gertakari aipagarria jazo zen, izan ere, urte horretako urriaren 22ko Osoko bilkurak hartutako erabakiaren ondorioz, Epaitegia eskubide osoz Kanpo Kontrolerako Organoen Elkarteari (KKOE/ASOCEX) txertatu zitzaion; elkarte horrek fiskalizazio lanetan lankidetza sustatu eta Kontuen Epaitegiarekiko koordinazioa areagotzea du helburu, kontu publikoen kontrol eraginkorra hobetzearren. KKOE sortzea autonomia erkidegoetako Kanpo Kontrolerako Organoen lehendakarien XXV. biltzarrean erabaki zen, ekainean.

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 73

Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Halaber, merezi du azpimarratzea Auditoria Publikoa aldizkariaren argitalpen bateratua egiten dela, web orriarekin batera; aldizkaria urtez urte sendotzen doa, kanpo kontrolari buruzko informazioa eta KKOen gaineko berriak emanez.

KKOen arteko harreman hauetan, lehendakariek hainbat bilera egiten dituzte urtean zehar guztien intereseko gaiak aztertzeko. KKOetako lehendakarien konferentzia 2024ko ekainean eta abenduan egin da, Madrilen eta Toledon, hurrenez hurren. Ekainaren 12an eta azaroaren 7an, Koordinazio Batzordeak bilera bana egin zuen KKO autonomikoen eta Kontuen Epaitegiaren artean, Melillan eta Salamancan, eta maiatzaren 8an eta 9an eta abenduaren 12an, hurrenez hurren, tokiko KKOen eta Kontuen Epaitegiaren artean, Palma Mallorcan eta Madrilen. Aldi berean, maiatzaren 8an eta 9an, Toki Erakundeen Kontuak Emateko Plataformaren Batzordearen bilera egin zen Palma Mallorcan. 2024ko ekainaren 5ean, KKOetako lehendakariak Madrilen elkartu ziren, Administrazio elektronikoa sustatzeko batzordearen esparruan. Azkenik, 2024ko maiatzaren 25ean eta irailaren 30ean, Grazen eta Bruselan, hurrenez hurren, bilera bana egin zen EURORAI Sektore Publikoaren Kanpo Kontroleko Eskualde Erakundeen Europako Erakundearekin.

Kontuen Epaitegia

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak onesten dituen txosten guztiak Kontuen Epaitegiari igortzen zaizkio, eta aldi berean honek autonomia erkidego, toki erakunde eta unibertsitate publikoen multzoari dagokionez Gorte Nagusietan aurkezten dituenetan barne hartzen dira.

Gainera, Kontuen Epaitegiak kontularitzako erantzukizuna auziratzeko eskumena du eta aukera du aldez aurreko instrukzio atala autonomia erkidegoetako kanpo kontrolerako organoei eskuordetzeko. 2024an zenbait aurretiazko jarduketa abiarazi ditu, baina Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ez dio eskuordetzerik batere egin.

Beste kanpo harreman batzuk

Gure txostenak, behin onartu eta fiskalizatutako erakundeetara igorri ondoren, gurre webgunean, www.tvcp.eus helbidean, argitaratzen ditugu.

Halaber, eta komunikabideekiko harremanak indartzeko, onartutako eta fiskalizatutako erakundeei igorritako txostenak Epaitegiaren dagokion prentsa ohar laburtuarekin batera komunikabide guztiei igortzen zaizkie posta elektroniko bitartez.

2024ko ekitaldian webgunean 12 txosten eman dira argitara; honela, bada, 2024ko abenduaren 31n 7598 txosten daude eskuragarri, 1990az geroztik HKEEk argitara emandakoak.

Webguneak Epaitegiaren Memoria ere argitaratzen du eta une honetan 2003tik 2023ra bitarteko ekitaldietako memoria guztiak daude kontsulta-gai eskura.

Berebat, eta jada ezagun dugun egituran eraginik izan gabe, webguneko Araudi aplikagarria atala gaurkotu dugu, Sektore Publikoko Auditoriako Nazioarteko Arauak gehitzearren (ISSAI-ES); arau horiek ekitaldian zehar onartu dira eta Kontuen Epaitegiak eta KKOek osatzen duten Arau eta Prozeduren Batzordeak egokitu ditu.

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 73

Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. EPAITEGIAREN ZERBITZURA DIHARDUEN LANGILERIA

Epaitegiaren zerbitzura diharduen langile kopurua 2024ko urte amaieran 70 pertsonakoa da, honako kategoria hauetan zati-banatuak:

Goi kargudunak	8
Behin-behineko langileak	10
Auditoreak	34
Letraduak	4
Administrazioko langileak	14

2024ko urtean Epaitegiak langileriaren prestakuntzarako guztira 504 ordu erabili ditu Epaitegiak berak eta kanpoko erakundeek antolatutako ikastaroetan, hizkuntzen ikaskuntzarako orduak kontatu gabe.

Ikastaroen berariazko aztergaiak honako hauek izan dira: alderdi ekonomiko, kontularitzako eta aurrekontuzkoak, kontratazioa, ogasun publikoa, Europako Erkidegoaren politikak eta aplikazio informatikoak.

Prestakuntzan erabilitako guztizko aurrekontua 100.000 eurorena izan da; honek 2024ko ekitaldian, “Ondasun eta zerbitzuen kontratazioa” gastuen 2. kapituluan egindako gastu guztien gainean % 7,8 egin du.

2024ko urtean zehar, derrigorrezko hizkuntza eskakizunak eskuratzera emandako orduak 224 izan dira.

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 73

Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. GARAPEN TEKNOLOGIKOA ETA PROZEDURAK

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak aplikazio informatikoak ezarri ditu erakundea herritarrengana eta harekin harremanetan dauden erakundeetara hurbiltzeko. Programa horietako bat Gestiona izenekoa da; Gestionak eremu elektronikoan administrazio-prozedura errazten du eta erakundeen artean eta zerbitzatzen dituzten pertsonen artean informazioa trukatzea sinplifikatzen du. Jakinarazpen elektronikoetarako erregistro elektronikoa eta txostenetarako alegazio-prozedura ere plataforma digital horretan ezarrita daude.

Azaldutako horrek guztiak neurriak hartzera behartzen gaitu, Interneten dauden prozesu horiek guztiak erabilera desegokitik babesteko. Arazoa konpontzeko, zerbitzari seguruak eskuratu dira eta segurtasun-kopiak birprogramatu, zerbitzuaren babesa eta jarraitutasuna bermatzeko.

Prozesu informatikoei buruzko legeria betetzeko, Segurtasun Eskema Nazionalaren (SEN) ziurtagiria lortu aurreko fasean gaude. Eskema horrek administrazio publikoak behartzen ditu zenbait prozedura eta arau ezartzera, zaintzen duten informazioa babesteko. Hori dela eta, informazioaren segurtasun-politika birdefinitu dugu, eta segurtasun-politikaren ondoriozko arau eta prozedura guztiak helarazi dizkiegu Herri Kontuen Euskal Epaitegiko langile guztiei.

Ekitaldian zehar, FISCALICEx plataforma ere ezarri da, fiskalizazio-prozedurari lotutako informazioa eta dokumentazioa eta haren ustiapena eta mantentze-lana elektronikoki kudeatzeko tresna. Tresna hori Kontuen Epaitegiak eta Kanpoko Kontrol Organo Autonomikoek garatu dute, gure fiskalizazio-eginkizunak betetzea errazten duten koordinazio- eta lankidetza-neurrien barruan, aplikazio eta tresna informatiko komunak erabiliz, gure prozesuen eta jarduketen eraginkortasuna arintzeko eta areagotzeko.

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. orrialdea, guztira 73

Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

VI. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN KUDEAKETA EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA HOBETZEKO NEURRIAK

2024an, Euskal Sektore Publikoaren ekonomia- eta finantza-jardueraren gaineko 12 fiskalizazio-txosten argitaratu dira. Txosten horietatik 10etan, legea betetzeari eta urteko kontuei buruzko iritzia eman da, eta barne-kontroleko sistemei eta kudeaketa-prozedurei buruzko irizpenak jaso dira.

Alde batetik, Iritziaren atalean jasotako ez-betetzeei dagokienez, % 5 aurrekontuarekin eta kontabilitatearekin zerikusia duten gaiei dagokie, % 17 langileekin, % 44 kontratazioarekin, % 17 kontuekin. Arloaren araberako xehakapena honako hau da:

- Aurrekontua eta kontabilitatea: kontu hartzailetzaren txosten negatiboa duten gastuak baliokidetzeari dagokio.
- Personala: dagokion atxikipena egin gabeko prima-ordainketekin lotutakoak, LPZrik ez izatearekin, araudian jasotzen ez diren osagarriekin, hautaketa-prozesurik gabeko kontratazio finko/mugagabeekin eta baimendutako % gainditzen duten aldi baterako kontratazioekin.
- Kontratazioa: batez ere zuzeneko adjudikazioa, zatikapena, kontratu-estaldurarik gabe egindako gastuak eta aurreikusi gabe prezioak gaurkotzea.
- Kontuak: ibilgetua baloratzeko euskarririk ez izatea eta memorian sartzen ez diren gertakari esanguratsuak. Horrez gain, urteko kontuetan doikuntzak egitea proposatu da zenbait txostenetan.

Bestalde, barne-kontroleko sistemei eta kudeaketa-prozedurei buruzko irizpenen atalean jasotako akatsei eta gomendioei dagokienez, adierazi behar da % 18 aurrekontuarekin eta kontabilitatearekin lotuta daudela, % 15 pertsonalarekin, % 43 kontratazioarekin, % 14 dirulaguntzekin eta gainerakoa diru-sarrerak eta dirubilketa, eta beste beste alderdi batzuekin. Hona hemen akats eta gomendio horiek arloaren arabera bereiziak:

- Aurrekontua eta kontabilitatea: Aurrekontuan, Memorian eta Likidazioan nahikoa eduki edo informaziorik ez izatea; konpromiso-kredituen egoera-orrian informazio eza; aurrekontua eta kontu orokorra onartzean atzerapenak; eta aurrekontuko aldaketak izapidetzean irregularitasunak.
- Pertsonala: batez ere aurrekontu-plantilla LPZra egokitzea, gauzazko ordainsariak Foru Ogasunari jakinarazi gabe, aldi batekoentzako hautaketa-prozesuak justifikazio nahikoa jasota utzi gabe, LPZ eguneratu gabe, mugagabe ez-finkoak erregularizatu gabe eta LPZ eta/edo baldintzak arautzen dituen akordioa/hitzarmena dagokion aldizkarian argitaratu gabe.
- Kontratazioa: batez ere honako hauetan laburbiltzen da: epeak gainditzea; kontratatzailearen profilean informazio-eza; baldintza-agirietan klausula sozialak sartu gabe egotea; mahaia oker osatu/eratzea; kaudimen-irizpideak esleipen-irizpide gisa sartzea; zuzeneko adjudikazio txikiak, gutxienez prozedura ireki sinplifikatu laburtu bat behar luketenak; esleipen-prozedura bakar bat egiteko multzokatu daitezkeen izaera bertsuko ondasun eta zerbitzuak; kontratuaren estaldurarik gabe egindako gastuak, gerora lizitatutakoak; lizitazio-aurrekontu oinarrizkoa ez da xehakatzen; esleipen irizpideak

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 14. orrialdea, guztira 73

ezargarria den hitzarmenari buruzko informazioa eman behar du; espedienteak baliabide elektroniko bidez izapidetu behar dira; kontratu aldaketekin zerikusia dutenak; balio-judizioari lotutako irizpideen balorazioa ez da behar hainbat arrazoitzen/justifikatzen; eta pleguetan behar hainbat definitu gabeko esleipen-irizpideak.

- Dirulaguntzak: dirulaguntzak justifikatzeko dokumentazio nahikorik ez izatea; dirulaguntzen plan estrategikorik ez egotea; Dirulaguntzen Datu-base Nazionalari informazioa ez ematea; diruz lagun daitekeen gastuak kontratu txikiaren zenbatekoa gainditzen badu, 3 eskaintza ez eskatzea; ebazteko epeak gainditzea; dirulaguntzen plan estrategikoa ez onartzea; izendun modura txertatu beharreko emakida eta dirulaguntza zuzenei publikotasunik ez ematea.
- Diru-sarrerak eta diru-bilketa eta beste batzuk: funtsean, ordainketa-epea ez betetzea, gardentasunaren web-atarian informazio nahikoa ez izatea, ondasunen eta eskubideen inbentariorik ez izatea eta hitzarmenei buruzko akatsak.

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 15. orrialdea, guztira 73

Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

VII. Herri Kontuen Euskal Epaitegiko aurrekontuen eta urteko kontuen likidazioa

2024ko ekitaldia

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 16. orrialdea, guztira 73

Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

I. AURREKONTUEN ONESPENA 18

I.1. Ekitaldiaren aurrekontuko emaitza 18
I.2 Ekitaldiko diruzaintzako kontua 19
I.3 Aurrekontu-ekitaldiaren likidazio-kontua 20

II. URTEKO KONTUAK 25

II.1 Balantzea 25
II.2 Ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua 26
II.3 Ondare garbian aldaketen egoera 27
II.4 Esku-diruaren fluxuen egoera 27
II.5 Memoria 28

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 17. orrialdea, guztira 73

Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

I. AURREKONTUEN LIKIDAZIOA

I.1 EKITALDIKO AURREKONTUAREN EMAITZAK

Hona hemen ekitaldiaren aurrekontu-emaitza, aurrekontu korronteari eta aurreko ekitaldiei dagokiena bereizita:

EKITALDIAREN AURREKONTUKO EMAITZA	Euroak milakotan	
	2024	2023
AURREKONTU KORRONTEAREN EMAITZA		
Eskubide aitortuak	8.947	8.643
Obligazio aitortuak	(7.498)	(7.666)
	1.449	977
AURREKO EKITALDIETAKO ERAGIKETEN EMAITZA		
Aurreko ekitaldietako obligazio aitortuak baliogabetzea	-	-
Aurreko ekitaldietako eskubide aitortuak baliogabetzea	-	-
	-	-
EKITALDIAREN AURREKONTUKO EMAITZA	1.449	977

DIRUZAINTZA GELDIKINA ABENDUAREN 31N	Euroak milakotan	
	2024	2023
Diruzaintza geldikina aurreko ekitaldiko abenduaren 31n	9.071	8.094
Ekitaldiaren aurrekontuko emaitza	1.449	977
GUZTIRA	10.520	9.071
Zalantzazko kobrantzako eskubideak	-	-
DIRUZAINTZA GELDIKINA EKITALDIKO ABENDUAREN 31N	10.520	9.071

2024ko abenduaren 31ko Diruzaintza Geldikinetik, 1.837 euroren saldoa (1.780 mila euro 2023ko abenduaren 31n) inbertsioak egiteari lotuta dago.

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 18. orrialdea, guztira 73

Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

I.2 EKITALDIKO DIRUZAINTZAKO KONTUA

Hona hemen ekitaldiko diruzaintza-kontua, urte naturalean egindako eragiketek osatua -indarrean dagoen aurrekontuari eta aurrekoei dagozkienak bereizita-, eta diruzaintzaren egoera aurrekontu-ekitaldiaren amaieran:

DIRUZAINTZAREN EGOERA ETA ERAGIKETAK	Euroak milakotan	
	2024	2023
DIRUZAINTZA ABENDUAREN 31N	9.463	8.448
DIRUZAINTZAREN BARIAZIOA EKITALDIAN	1.412	1.015
Aurrekontuko sarreren eta ordainketen arteko aldea	1.395	1.026
Aurrekontuko diru-sarrerak	8.947	8.643
Indarreko ekitaldikoak	8.947	8.643
Ekitaldi itxietakoak	-	-
Aurrekontuko ordainketak	(7.552)	(7.617)
Indarreko ekitaldikoak	(7.441)	(7.556)
Ekitaldi itxietakoak	(111)	(61)
Ekitaldiko diruzaintzaren bariazioa, eragiketa ez-aurrekontukoengatik	17	(11)
Hartzekodun ez-aurrekontuzkoen bariazioa	-	-
Beste batzuk	-	-
DIRUZAINTZA ABENDUAREN 31N	10.875	9.463

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 19. orrialdea, guztira 73

Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

I.3 AURREKONTUKO EKITALDIAREN LIKIDAZIO-KONTUA

GASTUEN AURREKONTUKO KREDITUEN ALDAKETAK

2024ko ekitaldian aurrekontuko bi aldaketa onartu dira.

Aurrekontu-plantillaren lehenengo aldaketa uztailaren 23ko Osoko Bilkuran onartu zen eta horren ondorioz, Auditore lanpostu bat eta Auditoretzako laguntzaileen 4 lanpostu amortizatu ziren; halaber, Auditoretzako urgazleen 5 lanpostu sortu ziren.

Aurrekontu-plantillaren bigarren aldaketa urriaren 24ko Osoko Bilkuran onartu zen eta horren ondorioz, Auditoretzako urgazleen 4 lanpostu sortu ziren, zeinak honako aurrekontuko zuzkidura honen kontura finantzatu baitira: 100.140.00 Beste langile batzuen ordainsariak.

Ikuspegi ekonomikoa oinarri hartuta, bi aldaketa horiek ez dute urteko kostu gordin handiagoa eragin, nahiz bi kreditu-transferentzia egin behar izan diren kontabilitatean zuzen egotzi ahal izateko; honela, bada, Funtzionarioen ordainsariak partida 146 mila euroan gehitu da eta kopuru berean murriztu da Beste langile batzuen ordainsariak partida.

2024ko ekitaldiko aurrekontu-plantillan egindako bi aldaketek bete egiten dute aurrekontu-aldaketen arloko araudi erregulatzailea, zeina arautzen baita Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen duen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuan eta 2024ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legean.

Gastuen aurrekontuaren likidazioa

Hona hemen ordainketa-kredituen taula erakusleak, zeinetan zehazten baitira hasiera batean baimendutako ordainketa-kredituak eta horien aldaketak, baimendutako kreditu guztien kontura hartutako betebeharrak, ekitaldian egindako ordainketak eta ordainketa-kredituen geldikinak:

GASTUEN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA — Euroak milakotan

GASTUAK	Azken aurrekontua	Obligazio aitortuak	Ordainketak	Kreditu geldikinak	Ordaintzeko dauden obligazioak
1.- Pertsonaleko gastuak	8.723	6.518	6.517	2.205	1
2.- Ondasun erosk. eta zerb.....	1.290	785	730	505	55
4.- Transf. eta dirulag. korront.....	3	-	-	3	-
6.- Inbertsio errealak.....	239	172	172	67	-
8.- Finantza aktiboen bariaz.....	70	23	23	47	-
GUZTIRA	10.325	7.498	7.442	2.827	56

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 20. orrialdea, guztira 73

Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Gastuen Aurrekontu-likidazioaren xehakapena KAKaren arabera honako hau da:

Euroak milakotan

KAK	Deskribapena	Azken aurrekontua	Obligazio aitortuak	Ordainketak	Kreditu geldikinak	Ordaintzeko dauden obligazioak
1. PERTSONALEKO GASTUAK						
100	Goi Kargudunen Ordainsariak	797	800	800	(3)	-
110	Behin-behineko langileen ordainsariak	765	757	756	8	-
120	Funtzionarioen ordainsariak	4.997	3.708	3.708	1.289	-
122	Funtzionarioak ordezten dituzten langileen ordainsaria	-	4	4	(4)	-
140	Beste langile batzuen ordainsariak	173	61	61	112	-
160	Erakundearen konturako gizarte-kotizazioak	1.509	948	948	561	-
161	Kalte-ordainak eta gizarte-prestazioak	399	193	194	206	-
162	Beste gizarte-gastu batzuk	83	47	46	36	1
1	GUZTIRA	8.723	6.518	6.517	2.205	1
ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA						
201	Eraikuntzak	220	209	209	11	-
206	Informazio prozesuetarako ekipoak	40	6	2	34	4
207	Garraio gaiak	60	60	52	-	8
210	Landareak eta lorategiak	17	16	15	1	1
211	Eraikuntzen konponketa eta zaintza	55	11	11	44	-
215	Instalazio elektrikoak	9	7	7	2	-
216	Altzariak	20	12	11	8	1
217	Informazio prozesuetarako ekipoak eta aplikazio informatikoak	130	77	75	53	2
218	Garraio gaiak	4	0	0	4	-
220	Bulegoko materiala, prentsa, aldizk. etabar	55	32	29	23	3
221	Hornigaiak	95	3	3	92	-
222	Komunikazioak	80	62	51	18	11
231	Lokomozioa eta egonaldi gastuak	100	77	71	23	6
233	Aseguru primak	15	9	9	6	-
234	Tributuak	7	3	3	4	-
235	Erakunde-komunikazioa, publizitatea eta harreman publikoak	9	-	-	9	-
236	Juridikoak eta auzibidezkoak	9	3	3	6	-
237	Bilerak, hitzaldiak eta ikastaroak	100	20	15	80	5
240	Garbiketa	140	112	103	28	9
241	Segurtasuna	8	6	6	2	-
242	Argitalpenen edizioa eta banaketa	7	3	3	4	-
244	Aditu independenteen azterlanak, lan teknikoak eta zerbitzuak	110	57	52	53	5
2	GUZTIRA	1.290	785	730	505	55

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 21. orrialdea, guztira 73

Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan

KAK	Deskribapena	Azken aurrekontua	Obligazio aitortuak	Ordainketak	Kreditu geldikinak	Ordaintzeko dauden obligazioak
4. TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZA KORRONTEAK						
452	Enpresa, familia eta beste sektore batzuei	3	-	-	3	-
4	GUZTIRA	3	-	-	3	-
6. INBERTSIO ERREALAK						
601	Aplikazio informatikoak	175	136	136	39	-
611	Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	35	34	34	1	18
615	Instalazio teknikoak eta beste instalazio batzu	2	-	-	2	-
616	Altzariak	6	-	-	6	-
617	Informazio prozesuetarako ekipoak.....	20	-	-	20	-
618	Garraio gaiak.....	-	-	-	-	-
619	Beste ibilgetu immaterial bat	1	2	2	(1)	-
6	GUZTIRA	239	172	172	67	-
8. AKTIBO FINANTZARIOEN BARIAZIOAK						
823	Langileriari maileguak.....	70	23	23	47	-
8	GUZTIRA	70	23	23	47	-
	GUZTIRA	10.325	7.498	7.442	2.827	56

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 22. orrialdea, guztira 73

Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Gastu-aurrekontuaren konpromiso-kredituen egoera-orria eta horien erabilera

Hona hemen, jatorri urtearen arabera sailkatuta, datozen ekitaldietarako konprometitutako kredituak jasotzen dituzten taulak, adieraziaz hasieran baimendutakoak, horien aldaketak eta erabilera maila:

JATORRI URTEAREN ARABERA KONPROMETITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA — Euroak milakotan

Jatorri urtea		Ekitaldi konprometituak 2025	2026	GUZTIRA
KREDITU GAURKOTUA				
2020	Ibilgailuak renting erregimenean eskuratzea (*)	69	46	115
2023	Posta zerbitzuak 2023-06-1etik 2024-5-31ra (luzapena)	2	-	2
2023	EJIEri enkargua telekomunikazio, telefonia finko, mugikor eta internet zerbitzuak emateko	33	-	33
2024	Garbiketa kontratua	126	42	168
GUZTIRA		230	88	318
KREDITU BAIMENDUA				
2020	Ibilgailuak renting erregimenean eskuratzea (*)	69	46	115
2023	Posta zerbitzuak 2023-06-1etik 2024-5-31ra (luzapena)	2	-	2
2023	EJIEri enkargua telekomunikazio, telefonia finko, mugikor eta internet zerbitzuak emateko	33	-	33
2024	Garbiketa kontratua	126	42	168
GUZTIRA		230	88	318
HITZARTUA				
2020	Ibilgailuak renting erregimenean eskuratzea (*)	69	46	115
2023	Posta zerbitzuak 2023-06-1etik 2024-5-31ra (luzapena)	2	-	2
2023	EJIEri enkargua telekomunikazio, telefonia finko, mugikor eta internet zerbitzuak emateko	33	-	33
2024	Garbiketa kontratua	126	42	168
GUZTIRA		230	88	318

(*) Hasiera batean 2020an onartutako konpromiso-kreditu hau 2022an aldatu da eta horren guztizko zenbatekoa azkenean gastua zorpetzea aurreikusi den ekitaldietara egokitu da.

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 23. orrialdea, guztira 73

Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Sarreren aurrekontuaren likidazioa

Hona hemen sarreren egoera-orria jasotzen duen taula, eta horrek barne hartzen ditu sarreren aurreikuspenak, eskubide aitortuak eta kitatuak eta ekitaldian zehar egindako diru-sarrerak.

SARREREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA — Euroak milakotan

PROGRAMA 100	Azken aurrekontua	Eskubide aitortuak	Diru-bilketa	Kobratzeko dauden eskubideak
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK	-	1	1	
332 Itzulketak	-	1	1	-
TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZA KORRONTEAK	8.481	8.481	8.481	-
412 EAEko Administrazio Publikotik	8.481	8.481	8.481	-
530 Bankuko kontu korronteen interesak	50	202	202	
TRANSFERENTZIAK ETA KAPITALEZKO DIRULAGUNTZAK	229	229	229	-
712 EAEko Administrazio Publikotik	229	229	229	-
AKTIBO FINANTZARIOEN BARIAZIOA	1.565	34	34	-
823 Langileei maileguak	30	34	34	-
870 Diruzaintza Geldikinak	1.535	-	-	-
GUZTIRA	10.325	8.947	8.947	-

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 24. orrialdea, guztira 73

Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. URTEKO KONTUAK

II.1 BALANTZEA

Hona hemen Egoeraren Balantzea 2024ko abenduaren 31n

EGOERAREN BALANTZEA 2023KO ABENDUAREN 31N — Euroak milakotan

	Memoriako Oharra	24.12.31	23.12.31
AKTIBOA			
AKTIBO EZ-KORRONTEA	4	100	156
Ibilgetu ukiezina	4	0	4
Ibilgetu materiala	4	83	123
Epe luzeko inbertsio finantzarioak	5	17	29
AKTIBO KORRONTEA		10.901	9.490
Zordunak eta kobr. bst. knt. b.		-	-.
Zordun ez-aurrekontukoak		1	2
Epe laburreko finantza inbertsioak	5	26	25
Eskud. eta beste aktibo likido baliokide batz		10.875	9.463
AKTIBOA, GUZTIRA		11.002	9.646
PASIBOA			
ONDARE GARBIA		10.656	9.262
Ondarea		-	-
Ekitaldian sortutako ondarea		1.381	895
Aurreko ekitaldietan sortutako ondarea		7.354	6.459
Sortutako ondarea, Inbertsioak egiteari lotua	6	1.837	1.780
Beste ondare-gehikuntza batzuk, emaitzetara egozteko daudenak	6	84	128
PASIBO KORRONTEA			
Hartzekod. eta ord. beste kontu batz	7	346	384
PASIBOA, GUZTIRA		11.001	9.646

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 25. orrialdea, guztira 73

Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.2 ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA

Hona hemen Ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontua 2024ko abenduaren 31n:

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA			Euroak milakotan
	Memoriako Oharra	24.12.31	23.12.31
Tasak eta bestelako sarrerak		1	-
Jasotako transferentzia eta dirulaguntza korronteak	6	8.481	8.284
Kudeaketa arrunteko gastuak finantzatzeko jasotako kapitalezko transferentziak eta dirulaguntzak		136	113
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA		8.618	8.397
Pertsonaleko gastuak		(6.518)	(6.673)
Kudeaketa arrunteko bst. gstu. batz.		(921)	(928)
Ibilgetua amortizatzea		(80)	(176)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA		(7.519)	(7.777)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA aurrezkia/(aurrezki eza)		1.099	620
Ibilgetu ez finantzariorako dirulaguntzak egoztea		80	176
ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZA		1.179	796
Finantziroen sarrerak		202	99
EKITALDIAREN FINANTZARIOEN EMAITZA		202	99
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA aurrezkia/(aurrezki eza)		1.381	895

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 26. orrialdea, guztira 73

Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.3 ONDARE GARBIAN ALDAKETEN EGOERA

Hona hemen aldaketen egoera-orria ondare garbian:

ONDARE GARBIAN ALDAKETEN EGOERA-ORRIA, GUZTIRA — Euroak milakotan

	SORTUTAKO ONDAREA	Inberts.lotutako sortutako ondar.	Egozteko dauden inbertsioak	GUZTIRA
ONDARE GARBIA, 2023KO EKITALDIAREN BUKAERAN	7.354	1.780	128	9.262
2024KO EKITALDIKO ONDARE GARBIAREN BARIAZIOAK				
Ekitaldian aitortutako sarrerak eta gastuak	1.381	-	-	1.381
2023an jasotako transferentzia gauzatu gabeak		57		57
Ibilgetu material eta ez-materialaren gehikuntzak finantzatu dituzten kapitalezko transferentziak			36	36
Ondarearen emaitza ekonomikoari aplikatutako kapitalezko transferentziak			(80)	(80)
ONDARE GARBIA, 2024KO EKITALDIAREN BUKAERAN	8.735	1.837	84	10.656

SARRERA ETA GASTU AITORTUEN EGOERA — Euroak milakotan

	2024	2023
Ekitaldiaren emaitza garbia – Aurrezkia/(Aurrezki eza)	1.381	895
DIRU-SARRERA ETA GASTU AITORTUAK GUZTIRA	1.381	895

II.4 ESKU-DIRUAREN FLUXUEN EGOERA

Hona hemen Diru-fluxuen egoera-orria:

DIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA — Euroak milakotan

	2024	2023
KUDEAKETA JARDUERETAKO DIRU-FLUXU GARBIAK		
KOBRANTZAK	8.684	8.383
Tasak eta bestelako sarrerak	203	99
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	8.481	8.284
ORDAINKETAK	(7.512)	(7.579)
Pertsonaleko gastuak	(6.518)	(6.672)
Bestelako kudeaketa gastuak	(866)	(836)
Beste ordainketa batzuk	(128)	(71)
KUDEAKETA JARDUERETAKO DIRU-FLUXU GARBIAK	1.208	804
INBERTSIO JARDUERETAKO DIRU-FLUXU GARBIAK		
KOBRANTZAK	263	259
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	229	229
Aktibo finantzarioen salmenta	34	30
ORDAINKETAK	(59)	(48)
Inbertsio errealen erosketa	(36)	0
Aktibo finantzarioen erosketa	(23)	(48)
INBERTSIO JARDUERETAKO DIRU-FLUXU GARBIAK	204	211
ESKUDIRUAREN GEHIKUNTZA EDO MURRIZKETA GARBIA ETA DIRUAREN BALIOKIDE DIREN AKTIBO LIKIDOAK	1.412	1.015
Eskudirua eta eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldi hasieran	9.463	8.448
Eskudirua eta eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldi amaieran	10.875	9.463

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 27. orrialdea, guztira 73

Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.5 MEMORIA

1. ANTOLAMENDUA ETA JARDUERA

Herri Kontuen Euskal Epaitegia Eusko Legebiltzarraren 1/88 Legeak arautzen du eta martxoaren 1eko 6/2012 eta urriaren 28ko 6/2021 legeen bitartez aldatu da. Euskal Sektore Publikoaren jarduera ekonomikoa eta finantzarioa fiskalizatzen duen organo gorena da, eta zuzenean Legebiltzarraren mende dago.

HKEE Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarentzat indarrean dagoen kontabilitate publikoko araubideari lotua dago, Eusko Legebiltzarraren mendeko estatutu-organo bat izateak berekin dakartzan berariazkotasunak dituela. Aurrekontua Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan jasoa dago, eta horien atal da.

2024ko ekitaldiari dagokion aurrekontua 2023ko urriaren 18an onartu zuen HKEEren Osoko Bilkurak. 2024ko ekitaldiari dagozkion aurrekontuaren likidazioa eta urteko kontuak HKEEren Osoko Bilkurak onartu beharko ditu, eta, ustez, inolako aldaketarik gabe onartuko dira.

2024ko aldirako, 2023ko urtarrilaren 26an egindako Osoko Bilkuran lan programa bat onartu zen eta programa horri, nahitaezkoak diren lanez gain, Eusko Legebiltzarrak eta lurralde historikoetako batzar nagusiek igorritako fiskalizazio proposamenak txertatu zitzaizkion, zeinetan guztira 34 fiskalizazio-txosten egitea aurreikusten baitzen.

2. KONTUAK AURKEZTEKO OINARRI-ARAUAK

2024ko ekitaldiko urteko kontuak Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2012ko ekainaren 25eko Aginduaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Kontabilitate Publikoaren Planean ezarritako arauen arabera aurkezten dira.

Kontu horiek osatzen dituzten dokumentuetan jasotako zifrak, balantzea, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria eta diru-fluxuen egoera-orria milaka eurotan adierazita daude.

Urteko kontu horiek, balantzearen partida bakoitzarekin, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuarekin, ondare garbiaren aldaketen egoera-orriarekin eta diru-fluxuen egoera-orriarekin batera, konparazio ondorioetarako, 2024ko ekitaldiko zifrez gain, aurreko ekitaldikoak ere aurkezten dituzte.

3. ERREKONOZIMENDU- ETA BALORAZIO-ARAUAK

Honako kontabilitateko irizpide hauek aplikatu dira:

- Ibilgetu materiala: Ibilgetu materialaren erosketak erosketa-prezioarekin kontabilizatzen dira eta linealki amortizatzen dira, ondasunen balio-bizitzaren arabera.
- Ibilgetu ukiezina: Ibilgetu ukiezinaren erosketak erosketa-prezioarekin kontabilizatzen dira eta linealki amortizatzen dira, ondasunen balio-bizitzaren arabera.

Aplikazio informatikoen urteko mantentze-lanei eta lizentziei dagokienez, 2021eko ekitaldira arte alta gisa erregistratzen ziren ibilgetu ukiezinean, eta ekitaldia ixtean dagokion

Baliozkotze Kod.: 6DZSEZEP6RZXFK623993562PT
Egiaztapena: https://tvcphkee.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 28. orrialdea, guztira 73

baja erregistratzen zen Ondarearen Emaitza Ekonomikoaren Kontuko Ibilgetua besterenganatzeagatiko Galerak kontuan zordunduta.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, kontzeptu honek eragindako gastuak Ondarearen Emaitza Ekonomikoaren Kontuko kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk idazpuruan erregistratzen dira.

- Sarrerak eta gastuak Diru-sarrerak eta gastuak kontabilitatean sortzen diren ekitaldian aitortzen dira eta ez horiek kobratu edo ordaintzen direnean.
- Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak
- Jasotako transferentzia eta dirulaguntza korronteak sarrera modura erregistratzen dira horiek jasotzeko eskubidea sortzen den ekitaldian.
- 2021eko ekitaldira arte, jasotako kapitalezko transferentziak sarrera modura erregistratzen ziren finantzatzen zuten inbertsioa egiten zenean. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, transferentzia horiek ekitaldi bakoitzaren emaitzari egozten zaizkio finantzatzen duten ondasunaren balio-bizitzaren proportzioan eta gauza horien amortizazioa zuzkitzeko baliatzen den metodo bera aplikatzen zaie, edo, kasua balitz, horiek besterentzeko edo inbentarioan baja emateko baliatzen dena.
- Finantza inbertsioak epe laburrera eta luzera. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, 12 hilabetetik hareagoko saldoak epe luzera erregistratzen dira.

4. IBILGETU UKIEZINA ETA IBILGETU MATERIALA

Idazpuru honetan barne hartutako partiden kontu-mugimenduak honako hauek izan dira:

Euroak milakotan

	Aben. 23			Urtea			Aben. 24		
	Gordina	Amort.	Garbia	Altak	Bajak	Amort.	Gordina	Amort.	Garbia
IBILGETU UKIEZINA	24	(20)	4	-	-	(4)	24	(24)	-
IBILGETU MATERIALA	3.904	(3.781)	123	36	-	(76)	3.940	(3.857)	83
